



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, IRUÑA OKAKO URKIDETZAREN 2005- EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Iruña Okako Uren Partzuergoaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren fiskalizazio txostenak legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, Epaitegi honen iritzira, azaleratu diren lege haustek direlata, Partzuergoak ez du bete 2005eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

Urteko Kontuei dagokienez, Epaitegiak hemen ere uste du kontuei jarri behar dizkien salbuespenen garrantzia dela eta, horiek ez dutela ez garatutako jardura ekonomikoa, ez ekitaldiko eragiketen emaitza erakusten. Hala eta guztiz ere, Epaitegiak ñabartu egin nahi du iritzi hau, izan ere Urkidetzak tamaina txikia baitu eta funtzionamendurako langileria gutxi.

Gainera, fiskalizazio lanaren ondorioak eta Urkidetzak dituen giza baliabideak aintzat hartuta, HKEEk Urkidetzaren jardute-atal nagusi den Batzar Nagusiari gomendatzen dio Arabako Foru Aldundiari eska diezaiola Urkidetzaren ekonomia eta lege mailako kudeaketaren egitekoak Urkidetza osatzen duten udalen idazkaritza-artekaritzaren batean meta ditzala.